

Azpeitian zer?

Udal aldizkaria

**Norbere erara,
baina beharrezko
laguntzarekin**



Telefono interesgarriak

Zentralita	943 15 72 00
Hirigintza	943 15 71 91
Gizarte Zerbitzuak	943 15 71 92
Kultura	943 15 70 68
Kirolak	943 15 00 95
Hezkuntza	943 25 50 06
Parekidetasuna	943 15 79 28
Emakumeen Txokoa	943 15 70 55
Iturritxiki Ludoteka	943 15 11 79
Txiki-Txoko Ludoteka	943 15 05 16
Gazte Informazio Bulegoa (GIB)	943 15 71 60
Gaztelekua	943 15 71 61
Eguneko Zentroa	943 15 74 96
Liburutegia	943 15 71 95
Udaltzainak	943 15 13 13
Igerilekua	943 81 41 21
Kiroldegia	943 81 30 69
Udal Euskaltegia	943 81 19 47

Ale honetan zer?

Gizarte zaharrago baten erronka berriak	3
Biziberri etxeak, erabiltzaileak hartzeko prest.....	4
Elkarriketa: Leire Goenaga	6

Azpeititik kanpo bizi arren, zure etxean jaso dezakezu
Azpeitian Zer? aldizkari hau posta bidez. Egin eskaria
943 15 71 85 (Alkatetza) telefonoan.

Argitaratzailea: Azpeitiko Udala · Egilea: Prentsa bulegoa
Argazkiak: Azpeitiko Udala · Diseinua: Sorland
Maketazioa: Sorland
Ale kopurua: 7.000 · L.G: SS - 1148/91

Herritarren Arreta Zerbitzua



Azpeitiko Udaleko lehen solairuan aurkitzen da Herritarren Arreta Zerbitzua. Dokumentuen erregistroa, errolda agiria atera, eskaera orokorrak zein lizentzia eskaerak edo kontsultak egiten dira bertan. Neguko ordutegian, astelehenetik ostiralera, 07:30etik 14:30era izaten da zabalik; ostegunetan salbu. Egun horretan, 07:30etik 19:00etara, etenik gabe, eskaintzen zaie zerbitzua herritarrei.



Gizarte zaharrago baten erronka berriak

**2031rako, lau
azpeitiarretik batek 65
urtetik gora izango ditu,
eta behar eta aukera
berriak ekarriko ditu
egoera horrek.**

Zahartzen ari da Azpeitiko biztanleria, eta aurreikuspenen arabera, zahartzen jarraituko du. Kalkulatzen da 2031rako lau azpeitiarretik batek 65 urte baino gehiago izango dituela. Behar eta aukera berriak ekarriko ditu horrek gizarteko hainbat eta hainbat arlotan. Besteak beste, baita etxebizitza eta zaintza ereduetan ere.

Azpeitiko Udalaren lehentasunetako bat da herriko adinekoei merezi duten bizi kalitatea bermatzea; horregatik, lehendik zuen eskaintzari beste bat gehitu dio: adinekoentzako etxe tutelatuak egin ditu Elizkalean. Biziberri izena dute, eta, etxe horietan, modu autonomoan baina behar duten laguntza guztiarekin biziko dira adinekoak.

Biziberri etxeak, erabiltzaileak hartzeko prest



Apirilaren erdialdera sartuko dira lehen erabiltzaileak Biziberri etxeetara. Autonomoak izan arren, eguneroko bizimoduari aurre egiteko zailtasunen bat duten adinekoentzako etxeak dira. Era askotakoak izan daitezke oztopo horiek: irisgarritasun arazoak (igogailurik ez, komuna egokitu gabe, eskailerak etxe barruan...), bakarrik sentitzea, ez sentitzea seguru norbere etxean...

Elizkalean daude etxeak, erdigunean, herriko komertzio eta gainerako zerbitzu gehienak gertu izateko. Hamabi dira guztira, lau solairutan banatuta: logela batekoak dira lau eta bi logela dituzte zortzik, etxea partekatu ahal izateko.

Etxe guztiek dute beren sukaldea, egongela, komuna eta trastelekua. Gehienak ezinduentzat egokituta daude (guztiak ez, erabiltzaile guztiak ez direlako profil berekoak izango), eta beharrezko ekipamendu guztia dute: sukaldea guztiz jarrita, altxatzen den ohea, telealarma... Era berean, ordea, bakoitzak bere erara apaindu ahal izango du, bere etxea izango delako.

HAINBAT PROFESIONAL

Adinekoek behar duten laguntza guztia izan dezaten, egunero hiru orduz gizarte langile bat egongo da haien zerbitzura, astean bitan psikologo bat joango zaie, eta garbitzaile bat ere izango dute. Asteburuetan ere izango dute laguntza.

Gizarte Zerbitzuetako langileek eguneroko jardunean ikusten dutena kontuan hartuz, ondorioztatu dute batik bat “seguru sentitzea” nahi izaten dutela adinekoek, hau da, zerbait gertatuz gero inguruan norbait izango dutela jakitea. Etxe tutelatuak segurtasun hori emango diete, baina norberak aukeratu ahal izango du zenbateko laguntza jaso nahi duen.

GEHIEN-GEHIENEZ, 600 EURO HILEAN

Etxeak ez dira epe jakin baterako izango, baizik eta mugarik gabe esleitu dira. Prezioei dagokienez, bakoitzaren diru sarrerak hartuko dira kontuan hileko kuotak kalkulatzeko. Banakako



apartamentuetan, gehienez ere 600 euro ordainduko du erabiltzaileak; gutxienez, berriz, 300 euro. Bi logelako apartamentuetan, berriz, pertsonako gehienezko kuota 390 euro izango da, eta gutxienezko kuota 195 euro.

Prezio horretan sartuta egongo dira argindarra, ura, wifia, eremu komunen garbiketa, etxeke elementuen mantenua eta aldian behingo garbiketa orokorra, baita gizarte laguntza eta profesionalek egiten duten gainbegiraketa ere. Zerbitzu horiez gain beste batzuk kontratatzeke aukera ere egongo da, aparteko tarifa batzuk ordainduz.

Biziberri etxeak ezagutzeko ate irekiak egingo dira **martxoaren 12an, 10:00etatik 12:00etara eta 15:00etatik 17:00etara.** Nahi duen edozeinek izango du parte hartzeke aukera. Informazio gehiago nahi dutenek Gizarte Zerbitzuetara ere deitu dezakete.

KONTUAN HARTUKO DIREN BALDINTZAK

1. 65 urtetik gorakoa izatea.
2. I. graduako mendekotasuna edukitzea.
3. Etxe baten beharra izatea (adibidez, norberarenak ez duelako igogailurik).
4. Laguntza behar izatea harremani lotutako trebetasunetan.
5. Azpeitian egotea erroldatuta.
6. Udal gizarte-zerbitzuek egokitasunari buruz emandako aitoren teknikoa izatea.
7. Osasun sailen laguntza beharrik ez izatea.
8. Infektatzeko edo kutsatzeko arriskua duten gaixotasunen bat edo arazo mentalen bat izanez gero, jaso beharreko tratamenduari uko ez egitea.
9. Jokabideari lotutako nahasmenduak izanez gero, horiek ez ekartzea arriskurik langileentzat edo gainerako etxeetan bizi direnentzat.

GUNE KOMUNITARIOA

Beheko solairuan, Elizkaletik bertatik sartuz, gune komunitario bat ere izango dute Biziberri etxeek. Langileen bulegoak egongo dira han, baina baita erabilera anitzeko gela bat ere, irakurketarako, telebista ikusteko eta abar. Gela hori, eraikinean bizi direnek ez ezik, gainerako herritarrek ere erabili ahal izango dute, hainbat ekintza antolatuko baitira bertan.





“Etxe hauek
mendekotasun egoerara
iristeko epea luzatzen ere
lagunduko dute”

Leire Goenaga

Gizarte Zerbitzuetako batzordeburua

Adinekoentzako hainbat zerbitzu ditu Azpeitiko Udalak, eta eskaintza hori are gehiago osatuko dute Biziberri etxeek. Zer beharri erantzun nahi zaie etxe tutelatuen bidez?

Gizarte Zerbitzuen barruan, atal garrantzitsua osatzen dute adinekoentzako zerbitzuek. Biztanleria zahartzen ari da, eta gero eta gehiago dira zainduak izateko beharra dutenak. Horrez gain, kontuan hartu behar da familiak ere gero eta txikiagoak direla. Ondorioz, bizimodu duin bat izateko, bestelako zerbitzu, laguntza eta zaintza sare batzuen behar gero eta handiagoa dago. Etxe tutelatuen bidez, behar horiei erantzun nahi zaie.

Zer profiletako erabiltzaileak aurreikusten dituzue?

Biziberri etxeak oraindik modu autonomoan edo zaintza handirik gabe bizitzeko gai diren pertsonentzat dira; hau da, mendekotasun handirik ez izan arren, hauskortasun egoera batean egon daitezkeen erabiltzaileentzat.

“Bizimodu duin bat izateko, bestelako zerbitzu, laguntza eta zaintza sare batzuen behar gero eta handiagoa dago”

“Berez, 65 urtetik gorakoentzat dira etxeak, baina kasuz kasu aztertuko ditugu egoerak”

Zerk eragindakoa izan daiteke hauskortasun hori?

Era askotakoak izan daitezke hauskortasun egoera hori eragiten duten faktoreak; adibidez, beren ohiko etxean oztopo arkitektonikoak izatea edo beraiek aukeratu gabeko bakardade egoeran egotea. Berez, 65 urtetik gorakoentzat dira, baina kasuz kasu aztertuko ditugu egoerak, eta 65 urte ez izan arren etxeek norbaiten bizi kalitatean onura handia izan dezaketela ikusiz gero, baloratu egingo dugu kasua.

Zer-nolako laguntza eskainiko zaie erabiltzaileei?

Etxeek zaintza edo zerbitzu sare bat eskaintzen dute, hainbat profesional egongo direlako: gizarte langilea, psikologoa, garbitzaileak... Horri guztiari esker, gure ustez, etxe hauek mendekotasun egoerara iristeko epea luzatzen ere lagunduko dute. Erabiltzaile bakoitzak bere beharren arabera erabakiko du zer zerbitzu nahi dituen. Hori guztia, gainera, ohiko etxe batean eskainiko zaie, etxe arruntak baitira Biziberri etxeak, kanpotik nahiz barrutik.

Etxe horietako erabiltzaileek nolako harremana izango dute elkarrekin?

Gune horretan, bestelako jarduerak ere antolatuko dira: elkarrekin harreman sareak egiteko aisialdi ekintzak, eguneko unitatea, hitzaldi eta solasaldiak eta abar. Gainerako herritarrek ere izango dute horietan parte hartzeko aukera.



LARDAXKA
SEXU, GENERO ETA BIKOTE AHOLKULARITZA

LARDAXKA udalaren sexu, genero eta bikote aholkularitza zerbitzua Emakumeen Txokoan

Sexuaren, generoaren eta sexuen
arteko harremanen inguruko
ezinegonak, zalantzak eta zailtasunak
argitzeko zerbitzua.

Norbanakoei, bikoteei nahiz kolektiboek zuzenduta

Eskatu hitzordua: Emakumeen Txokoan edo
943 15 70 55 zein **688 751 000** telefonoetan.

Ordutegia

Asteartetan, bi astean behin.
Goizez 10:00etatik 13:00etara.
Arratsaldez 16:00etatik 19:00etara.

Informazio gehiago:



www.azpeitia.eus